

Diciembre. 1962

Irugarren Sorta-8'gn Zenbakia.
Tercera serie. N.º 8. IRUÑA-
PAMPLONA

GIBRALTAR ETA BESTE

New York, 1962-XII-7.

Piniés jaunak, España'ren ize-
nean, Gibraltar eskatu du O.N.U.ko
Batzarrean. "Gibraltar España'ko
zati bat da... Españolak ez dute
beñere aaztuko españalurralde
maite ori..."

PINIÉS
JAUNARI
ETA ko
batek

Orrelaxe itzegin du España'ko
agintariak.

Arrigarria!

Españolak iñola ere ez omen
dute Gibraltar galdu nai. Eta, gai
ontaz, arrazoin ematea bidezko
zait. Inlaterra'k ez du arroka ortan
agintzeko eskubiderik; Portugal'ek
Goa'n, eta España'k Zeutan segi-
tzeko eskubiderik batere ez duten
bezela.

Arrigarria da, orrengatik, Gibrat-
tar eskatzean, Piniés'ek Zeuta ez
eskeintzea. Zertan gera, bada?
Gibraltar bai, eta Zeuta aipatu ere
ez?

Alere, oargarria da Franco'ren
eta falanjisten sua Gibraltar orreki-
ko. Arkaitz legor batzuk, eta... ale-
re, ezin ikus, ezin jasan orrelako
bidegaberik. Miñaren aundia! Bost
kilometro españar orrela atzerrita-
rren menpean. Ezin!

Gu, euskaldunok, españolak
omen gera. Errotik españolak,
españoletan españolenak Franco'-
ren eta falanjisten ustez.

Demagun.

Eta, lapurtarrak eta xuberota-
rrak, zer dira bada? Txinoak? Bos-
kimanoak? Euskaldunak dira! Gu
bezin euskaldunak.

Eta baxenabartarrak zer dira?
Naparrak eta euskaldunak.

Aiek eta auek, beraz, euskaldu-
nak diralako eta geralako, españo-
lak gera. Itz gutxitan esateko: edo
danok gera españolak, edo ez berak
eta ez gu. Danok anaiak baikera.

Ortaz, au esaten diogu Piniés
jaunari:

"Jauna:

Euskaldunak españolak gera.
Egia duzu: españolik españolenak
gaituzu.

Bego.

Zergatik ez dituzu eskatu, beraz,
Lapurdi, Baxenabarre eta Xuberoa
España'rentzat?

Bost kilometro arkaitz ezin ikus
ditzakezu Inlaterra'ren eskuetan.
Eta onetxek arritzen gaitu. Nola
ikus ditzakezu, bada, lasai, IRU
PROBINTZI EDER, OSORIK, Frain-
tziaren eskuetan?"



Irugarren Sorta - 8'gn Zenbakia - 00000 - Tercera Serie - Núm. 8
IRUÑA - PAMPLONA

GIBRALTAR ETA BESTE

New York, 1962 - XII - 7

Piniés jaunak, España'ren
izeanean, Gibraltar eskatu du O.N.U.ko
Batzarrean. "Gibraltar España'ko zati bat
da ... Españolak ez dute beñere aaztuko es-
pañalurralde maite ori" ...

PINIÉS
JAUNARI
E.T.A. ko
batek .

ARABA

Orrelaxe itzegin du España'ko agintariak.
Arrigarria!

BIZKATA

Españolak iñola ere ez omen dute Gibraltar galdu nai.
Eta, gai ontaz, arrazoin ematea bidezko zait. Inlaterra'k ez du
arroka ortan agintzeko eskubiderik; Portugal'ek Goa'n, eta Espa-
ña'k Zeutan segitzeko eskubiderik batere ez duten bezela.

GIPUZKOA

Arrigarria da, orrengatik, Gibraltar eskatzean,
Piniés'ek Zeuta ez eskeintzea. Zertan gera, bada? Gibraltar bai,
eta Zeuta aipatu ere ez?

LAPURDI

Alere, oargarria da Franco'ren eta falanjisten sua
Gibraltar orrekiko. Arkaitz legor batzuk, eta ... alere, ezin
ikus, ezin jasan orrelako bidegaberik. Miñaren aundia! Bost ki-
lometro españar orrela atzerritarren menpean. Ezin!

NAFARROA

Gu, euskaldunok, españolak omen gera. Errotik espa-
ñolak, españoletan españolenak Franco'ren eta falanjisten ustez.

ZUBEROA

Demagun.
Eta, lapurtarrak eta xuberotarrak, zer dira bada?
Txinoak? Boskimanoak? Euskaldunak dira! Gu bezin euskaldunak.
Eta baxenabartarrak zer dira? Naparrak eta euskal-
dunak.

EUZKADI

BATEN

ANAI!

Aiek eta auek, beraz, euskaldunak diralako eta ge-
ralako, españolak gera. Itz gutxitan esateko: edo danok gera es-
pañolak, edo ez berak eta ez gu. Danok anaiak baikera.

DANOK

BAT

Ortaz, au esaten diogu Piniés jaunari:
"Jauna:

EUZKADI'REN

ALDE!

Euskaldunak españolak gera. Egia duzu: españolik
españolenak gaituzu.

Bego.

Zergatik ez dituzu eskatu, beraz, Lapurdi, Baxe-
nabarre eta Xuberoa España'rentzat?

Bost kilometro arkaitz ezin ikus ditzakezu Ingate-
rra'ren eskuetan. Eta onetxek arritzen gaitu. Nola ikus di-
tzakezu, bada, lasai, IRU PROBINTZI EDER, OSORIK, Frain-
tziaren eskuetan?"

Erantzuna, zozoentzat, urrengo zenbakian.

TXILLARDEGI

Erantzuna, zozoentzat, urrengo
zenbakian.

Txillardegia

ARABA, BIZKATA, GIPUZKOA,
LAPURDI, NAFARROA, ZUBE-
ROA

EUZKADI BATEN ANAI!

DANOK BAT EUZKADI'REN
ALDE!